

EPIDEMIAREN EGOERA

EPIDEMIAREN HASIERAN, ESPAINIAN...	GAUR, ESPAINIAN...
GIB injekzio-materiala partekatzeagatik eta babes gabeko sexu-harremanak izateagatik kutsatzen zen batez ere.	GIB babesik gabeko sexu-harremanen bidez kutsatzen da nagusiki.
Europako hies-tasarik altuenen berri ematen zen.	GIBen infekzio-diagnostiko berrien kopuruak Europar Batasuneko antzekoak dira.
GIB zuten pertsonen bizitza-itxaropena laburra zen. Infekzioaren ostean ez zuten 10 urte baino gehiago irauten.	GIB bilakaera kronikoko tratamendu sendagarririk gabeko gaixotasuna bilakatu da.
Gaixotasun oportunistak agertzea zen ardura kliniko nagusia.	GIB duten pertsonen zahartzea eta tratamenduen bigarren mailako efektuak dira ikerketaren eta tratamenduaren ardatzak.

30 urte bete dira hiesaren lehen diagnostikoak egin zirenetik. Denbora horretan, aurrerapen handiak egin dira infekzioaren ezagutzan eta horren tratamenduan. Hala eta guztiz ere, oraindik ere erronka handiei egin behar zaie aurre, batik bat prebentzioari dagokionez eta gaixotasun honen osasun- eta gizarte-lanketari dagokionez.

INFORMA ZAITEZ

Doako informazioa Espainiako edozein tokitatik:

Gurutze Gorria > 900 111 000
informacionvih@cuzroja.es
www.cuzroja.es/vih/
900 ROSA > 900 601 601

Informazioa komunitate eta hiri autonomoen arabera:


Andaluzia > 900 850 100 / www.juntadeandalucia.es/salud/vih
Aragoi > 900 111 000 / www.saludpublicaaragon.es
Asturias > 985 338 832 / www.pruebadeamor.org
Balear Uharteak > 971177360 / <http://vihsida.caib.es>
Kanariak > 902 114 444/922 237590 / www.gobiernodecanarias.org/sanidad/scs/sida.htm
Kantabria > 942 207 745/732 / www.saludcantabria.org
Gaztela-Mantxa > 900 111 000 / www.jccm.es
Gaztela eta Leon > 983 413 600/ www.saludcastillayleon.es
Katalunia > 900 212 222 / <http://canalsalut.gencat.cat>
Extremadura > 924 382 641/924 382 594 / www.saludextremadura.com
Galizia > 881 542 914 / <http://dxsp.sergas.es>
Madril > 900 111 000 / www.madrid.org
Murtzia > 900 706 706 / www.murciasalud.es
Nafarroa > 848 423 396 / www.isp.navarra.es
Euskadi > 943 006 464 / www.osakidetza.euskadi.net/sida
Erioxa > 941 291 976 / www.riojasalud.es
Valentzia Erkidegoa > 900 702 020 / www.sp.san.gva.es
Ceuta > 856 205 009 / 900 101 867 / www.plansidaceuta.es
Melilla > 952 976 251 / www.melilla.es

Jarrai gaitzazu hemen:
YouTube f



30
urte lorpenekin
urte erronkekin

Abenduak 1, HIESAREN MUNDUKO EGUNA



AQUÍ EL LOGO



www.mspsi.gob.es

Lorpenak

BADAKIGU ZER DEN GIB, NOLA KUTSATZEN DEN ETA NOLA PREBENITZEN DEN

Giza immunoeskasiaren birusak (GIB) organismoaren defentsak suntsitzen ditu eta infekzioak, tumoreak eta beste gaixotasun batzuk eragiten ditu. **Hiesa** da GIB infekzioaren faserik larriena.

GIB HONELA SOILIK KUTSA DAITEKE:

- Babes gabeko sarketa bidezko sexu-harremanak izatea (bagina bidezkoa, uzki bidezkoa edo aho bidezkoa). Sartzen duenak nahiz sartua izan denak izan dezake kutsatzeko arriskua; hala ere, azken horrek arrisku handiagoa du. Gainera, arriskua handiagoa da genitaletan lesioak eta sexu-transmisiozko infekzioak izanez gero.
- Infektatutako odolarekin kontaktuan egon den objektu ziztatzailea partekatuta: xiringak, orratzak, akupunturarako tresnak, tatuaiak, piercing-ak eta abar.
- GIB duen emakume batek semeari/alabari haurdunaldian, erditzean edo edoskitzean.

GIB PREBENITU DAITEKE:

- Preserbatiboak erabilia (maskulinoa edo femeninoa) sarketa bidezko sexu-harremanetan eta aho bidezko sexuan ahoan isurtzea saihestuta.
- Material esterila erabiliz beti eta injekzio bidezko drogak kontsumituz gero, xiringak, orratzak eta injekzioko beste tresna erabilgarri batzuk partekatzea saihestuz.
- Haurdun bazaude eta GIB baduzu, transmititzeko arriskua nabarmen murrizten duten tratamenduak daude. Amagandiko edoskitzea ez dago gomendatuta.

BADAKIGU GIB NOLA ANTZEMATEN DEN

GIBen proba GIB infekzioa antzematen duen analisi espezifikoa da. **Borondatezkoa eta konfidentziala** izan behar du beti eta modu **anonimoan** ere egin daiteke.

Doan egin daiteke **sare publikoko osasun-etxeetan**. **Sexu-transmisiozko gaixotasunen zentroetan**, zenbait **GKE-etan** eta **farmaziatan** ez dizute osasun-txartela eskatuko.

GIB antzemateko proba bizkorrak ere badaude; horren emaitza 30 minutu baino gutxiagotan eskura daiteke. Proba horietan ateratako emaitza positiboa baieztatu egin behar da ondoren.

TRATAMENDU ANTIRRETROBIRALAK DITUGU

Espanian, bizi-kalitatea hobetu, GIB dutenen biziraupena areagotu eta ama eta seme-alaben arteko birusen transmisio-arriskua murrizten duten tratamendu antirretrobiralak ditugu.

Erronkak

PREBENTZIO ESTRATEGIAK SUSTATZEA

Aurrerapenak egin diren arren, GIBekin bizi den pertsona kopuruak areagotzen jarraitzen du.

Hori dela eta, GIB eta bestelako sexu-transmisiozko infekzioen transmisioa prebenitzeko oinarriko neurri gisa, beharrezkoa da **PRESERBATIBOAREN ERABILERA SUSTATZEKO** estrategiak bultzatzea.

DIAGNOSTIKOAREN ATZERAPENARI AURRE EGITEA

Espanian, datuen arabera, gutxi gorabehera **120.000 eta 150.000 pertsona artean daude GIBekin kutsatuta**; horien artean, **35.000** pertsonak ez dakite oraindik. Hori dela eta, diagnostiko goiztiarrak lehentasuna du.

GIB-EN PROBA HONAKO HAUEI EGITEA GOMENDATZEN DA:

- Haurdun dauden edo haurdun geratzeko asmotan dauden emakumeei.
- Sexu-transmisiozko infekzioen bat, tuberkulosia edo hepatitis birikoa izan duten pertsonen.
- Bikotekide egonkorra duten eta bikotearekin preserbatiboak erabiltzeari utzi nahi dioten pertsonen.
- GIB zuen norbaitekin edo infektatuta ote zegoen jakin gabe norbaitekin sarketa bidezko sexu-harremanak (uzki edo bagina bidezkoa eta aho bidezkoa isurketa izanez gero) preserbatiborik gabe izan duenari.
- Drogak injektatzeko materiala partekatuz gero (xiringak, orratzak, koilarak, iragazkiak...).

Arriskuzko praktikaren bat izan baldin baduzu, ez egon zain, joan zaitez zure osasun-zentrorara edo proba egin diezazuketene beste zentro batera. Han zure kasua baloratuko dute, proba egingo dizute, eta negatibo emanez gero, berriz egin behar dizuten eta noiz egingo dizuten esango dizute.

Infektatuta zauden ahalik eta lehenbailehen jakiteak zure bizi-kalitatea hobetuko duen, zure biziraupena areagotuko duen eta beste infekzioa transmititzea eragozteko beharrezko neurriak hartzen lagunduko dizun tratamendu eraginkorra eskuratzea ahalbidetuko dizu.

TXERTOA ETA TRATAMENDU SENDAGARRIA GARATZEA

Gaur egun, organismoetik GIB murrizteko edo kentzeko helburuarekin txertoak eta metodoak probatzeko hainbat entsegu kliniko daude martxan.

HERRIALDE TXIROTUETAN TRATAMENDUETARA SARBIDE UNIBERTSALA SUSTATZEA

GIB duten pertsona guztiak, herrialde txirokoa edo aberatsekoa izan, tratamendueterako sarbidea izatea da funtsezkoa.

GIB DUTEN PERTSONEI EMANDAKO ARRETA HAIEN BEHAR BERRIETARA EGOKITZEA

GIB duten pertsonen beharrak epidemiaren hasierakoez bestelakoak dira. Gaur egun, infekzioaren higaduraren eta tratamenduen bigarren mailako efektuen eraginpean daude eta, kasu askotan, infekzio kronikoei egin behar izaten diete aurre, hala nola hepatitisari eta zahartzaroko gaixotasunei.

Gaixotasuna kroniko bihurtzeak eta GIB duten pertsonen zahartzeak beharrezko egiten du lanke osokoa eta diziplina anitzekoa izatea; alderdi medikoak, psikologikoak eta sozialak jasota.

GIB DUTEN PERTSONEN DISKRIMINAZIOARI, ESTIGMARI ETA AURREIRITZIEI AURRE EGITEA

Diskriminazioak GIB dutenek aurre egin beharreko arazo nagusi izaten jarraitzen du. Sexu-litateari eta infekzio-eritasunei buruzko aurreiritziek eta horiek aurrez estigmatizatutako taldeekin bat egiteak eragiten dute estigma; horien artean daude: GIBari buruzko ezagutza-gabezia eta okerreko ideiak, hiesa, transmisio-bideak eta ez transmititzeko bideak.

GIB EZ DA HONELA TRANSMITITZEN:

- Musuen eta laztanen bidez, eskua emateagatik edo ukitzeagatik.
- Malkoen, izerdiaren, listuaren, ezturen edo doministikuen bidez.
- Erabilera komuna duten objektuak partekatzean (telefonoa, mahai-tresnak...), arropa edo elikagaiak, dutxak, bainugela, igerilekua, kirol- edo aisialdi-instalazioak, lantokia, egoitzak, eskolak, bainuetxeak eta establezimendu publikoak.
- Animalien, eltxoen edo beste intsektu batzuen bidez.
- Odola eman edo jasotzeagatik, kontrola egokia den herrialdeetan.